

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Elementu kimikoen ezaugarri berezigarriak aztertuz eta ikertuz, konposatu kimikoak osatzen dituzten atomoen arteko lotura kimikoak nola eratzen diren arrazoitu eta konposatu kimikoen izenak eta formulak arauak jarraituz adierazi, beti ere konposatuen egitura eta propietateak azaltzeko.</p>	<p>1.1. Egoki idatzi ditu konposatu kimikoen formulak eta izenak.</p>
<p>2. Higidura deskribatzeko behar beharrezkoak diren kontzeptuak eta magnitudeak (ibilbidea, erreferentzia-sistema, posizioa, distantzia, abiadura) identifikatu, hizkuntza zientifiko egokia erabiliz (kalkuluak eta grafikoak).</p>	<p>2.1. Higidura deskribatzeko magnitudeak ondo identifikatu ditu (higidura, abiadura, posizioa, distantzia). 2.2. Magnitudeak ondo kalkulatu ditu, bere izaera oinarri zientifikoetan azalduz. 2.3. Higikariarekin gertatutakoa ongi interpretatu du, arrazoiz egokiak emanez.</p>
<p>3. Higidura uniforme (lineala) definitu eta deskribatu, ekuazio eta irudikapen-grafikoak (posizio-denbora eta abiadura-denbora grafikoak) erabiliz eta interpretatuz.</p>	<p>3.1. Higikariaren higidura mota identifikatu eta ongi interpretatu du. 3.2. Higikari baten azterketa zinematiko batean oinarrituta, higidura ongi deskribatu du (higidura ekuazioa adieraziz) 3.3. Higidura-ekuazioak egoki erabiliz magnitude zinematikoak egoki kalkulatu ditu (distantzia, abiadura lineala...).3.4. Higidura uniforme deskribatzeko egoki irudikatu ditu s-t eta v-t grafikoak.</p>
<p>3. Higidura uniformeki azeleratua definitu eta deskribatu, ekuazio eta irudikapen grafikoak (posizio-denbora eta abiadura-denbora grafikoak) erabiliz eta interpretatuz.</p>	<p>4.1. Zuzen egin du higikariaren higiduraren atalen azterketa zinematikoak, higidura zuzen uniformeki azeleratuaren ezaugarriak ondo identifikatuz. 4.2. Higidura-ekuazioak egoki erabiliz magnitude zinematikoak egoki kalkulatu ditu (distantzia, azelerazioa, denbora...) 4.3. Higidura uniformeki azeleratua ondo deskribatzeko egoki irudikatu ditu s-t eta v-t grafikoak.</p>